Hainbat emanalditan ere parte hartzen du, esate baterako, operetan, zarzueletan, errezitaldietan, oratorioetan, eta grabaketetan. Horien artean, Naxosentzat grabatutako Francisco Escuderoren Illeta izeneko Oratorio Elegiakoaren baritono bakarlariarentzako zatia nabarmendu genezake.

2005. urtean Rossiniren Petite Messe Solennelleren bakarlaria izan zen. Obra hau lehen-aldiz Cuban interpretatu zuten, "Amadeo Roldán" Auditorioan eta La Habanako Katedralean.

Barítono natural de Errenteria se inicia en la música desde niño. Pertenece durante treinta años al Orfeón Donostiarra, actúa como solista en numerosos conciertos y recibe en 1986, de manos del maestro Antxón Ayestarán, el nombramiento de socio de honor de esta entidad coral.

Ha participado en diversos programas de la Orquesta Nacional de España, Sinfónica de Euskadi, Sinfónica de Bilbao, Orchestre de Bayonne - Côte Basque, Santa Cecilia de Pamplona, Conservatorio de Música de San Sebastián...

Participa con solvencia en numerosas representaciones de ópera, zarzuela, recitales, oratorios y grabaciones. Destaca entre éstas la parte de barítono solista del Oratorio elegíaco Illeta de Francisco Escudero para Naxos.

En 2005 canta como solista la Petite Messe Solennelle de Rossini, estreno en Cuba, en el Auditorio "Amadeo Roldán" y en la Catedral de La Habana.

Coral Andra Mari Abesbatza

Errenteriako Andra Mari Abesbatza 1966an sortu zuen José Luis Ansorenak. 1994. urtean José Manuel Tifek hartu zuen zuzendaritza, eta hura da gaur egun ere funtzio hori betetzen duena. Hainbat lehiaketatan lortu ditu sariak, eta besteak beste Madrilen, Bartzelonan, Sevillan, Tenerifen eta Peralada, Santander eta Donostiako jaialdietan parte hartu du. Hainbat orkestrarekin aritu da: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilbokoa, Espainiako Orkestra Nazionala, Tenerifekoa, Galiziakoa, Scottish Chamber Orchestra, Buenos Aireseko Filarmonikoa eta Cadaquéseko Orkestra, maila handiko zuzendariekin (Brüggen, López Cobos, Ros Marbá, Juanjo Mena eta Victor Pablo Pérez). Hainbat bira egin ditu Europan eta Argentinan barrena, eta hainbat disko grabatu ditu. Era guztietako koru musika lantzen du, opera eta zartzuela antzeztuak barne, eta euskal musikan espezializatua da. Errenterian Musikaste sortu zuen (Euskal Musikagileen Astea), urtean behin antolatzen dena, eta baita Eresbil ere (Musikaren Euskal Artxiboa/Archivo Vasco de la Música).

Fue fundada en 1966 por José Luis Ansorena. En 1994 asume su dirección José Manuel Tife, quien continúa al frente de la misma. Ha conseguido numerosos premios en concursos y actuado en Madrid, Barcelona, Sevilla, Tenerife y en los festivales de Peralada, Santander y San Sebastián, entre otros. Ha colaborado con la Orquesta Sinfónica de Euskadi, la de Bilbao, Nacional de España, Tenerife, Galicia, Scottish Chamber Orchestra, Filarmónica de Buenos Aires y la Orquesta de Cadaqués, con directores como Brüggen, López Cobos, Ros Marbá, Juanjo Mena o Victor Pablo Pérez. Ha realizado giras por varios países europeos y Argentina, y grabado varios discos. Cultiva todo género de música coral, incluidas óperas y zarzuelas, estando especializada en la música vasca. Creó, en Errenteria, el festival Musikaste, Semana de Compositores Vascos que se celebra anualmente, así como Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboa/Archivo Vasco de la Música.

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

BOS Estatuan tradizio haundienetakoa duen orkestra konsidera daiteke. 1922an bere lehen kontzertua eman zuenetik etapa ezberdinak bizi izan ditu. Hasiera batean bere kontzertu emanaldi ugariak zirela eta penintsula iparraldeko orkestra bezala konsideratua izan zen; gaur egun berriz, bere musika nazioartera zabaldu da eta San Petersburgo, Tokio eta frantziako jaialdi garrantzitsuenetan parte hartzera eraman du.

BOSen jarduerak zale ugarien laguntzari eta Babesleen –Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala– ekarpenei esker garatzen dira. Gaur egun 2.200 abonatu baino gehiago ditu. 1999. urtetik orkestrako zuzendari titular eta artistikoa Juanjo Mena da.

Euskalduna Jauregiko abonoko denboraldiaz gain, Bizkaiko herrietan aritzen da, OLBEren operetan kolaboratzen du eta birak eta irteerak egiten ditu. Horretaz gain, 1985az geroztik kontzertu didaktikoak egiten ditu. Gainera, beste instituzio kulturalekin lankidetza lanak egiten ditu, adibide bezala, Arriaga Antzokia eta Bilboko Guggenheim Museoa.

Grabatutako diskoen artean, Naxos disko-etxerako grabatutako euskal musikari buruzko bilduma interesgarri bat aipatu behar da. Bertan, Arambarri, Guridi, Arriaga, Isasi, Usandizaga, Sarasate eta Escuderoren lanak grabatu dira.

Puede considerarse a la BOS como una de las orquestas de mayor tradición en el Estado. Desde su primer concierto en 1922 ha vivido diferentes etapas, desde los años en los que por sus frecuentes giras era considerada de facto la orquesta del norte de la península, hasta la más reciente expansión internacional que le ha llevado a actuar en San Petersburgo, Tokio, y de manera regular en importantes festivales franceses.

La actividad de la BOS se desarrolla gracias al apoyo de sus numerosos aficionados, contando en la actualidad con más de 2.200 abonados, y a las aportaciones de la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao. Desde 1999 Juanjo Mena ocupa la dirección titular y artística de la orquesta, formada por 97 profesores y profesoras.

Además de su temporada regular de conciertos en el Palacio Euskalduna, sede de la orquesta, la BOS ofrece dos temporadas de música de cámara (una en Bilbao y otra en localidades de Bizkaia), una importante labor pedagógica a través de los conciertos didácticos y En familia, y participa regularmente como orquesta de foso en las óperas de la ABAO. Mantiene también líneas de colaboración en programas conjuntos con el Museo Guggenheim y el Teatro Arriaga de Bilbao.

Dentro de su catálogo discográfico, la BOS ha realizado recientemente una interesante colección de música vasca para Naxos dedicada a Arambarri, Guridi, Arriaga, Isasi, Usandizaga, Sarasate y Escudero.

Iker Sanchez Silva

1976an Irunen jaio zen eta bertan hasi zituen tronpeta ikasketak. Donostia, Bordele eta Munich-en espezializatu zen, Euskadiko eta Municheko Orkestra Sinfonikoekin lankidetzak eginez.

Jesús López Cobos, Arturo Tamayo edo Enrique Garcia Asensio maisuekin zuzendari formazioko ikastaroak egin ditu. Parisen IRCAM-ek antolatutako ikastaro batean ere parte hartu du Peter Eötvos eta Szolt Nagy zuzendariekin eta Luxemburgoko Orkestra Filarmonikoarekin.

Bere esperientzia ganberako musikan oinarritzen da, XX. eta XXI. mendetako musika zabaltzen eman du bere denbora instrumentu taldeak zuzenduz: T.I. 04 (Gasteiz), Musikeneko Instrumentu Taldea (Donostia), KABOS Ensemble (Bilbo), KRATER Ensemble (Donostia)..., Sergio Gutiérrez, Oscar Colomina, Xabier Mariño, Mikel Chamizo, Leyre Aguirre eta Aurelio Edler-en musika lanak estreinatu ditu. Jaialdi ezberdinetan parte hartu du: Carmelo Bernaola Nazioarteko I. Jaialdia, Donostiako Musika Hamabostaldia, Estibalitzeko Garai Berrien II. Jaialdia, BOS-eko Ganbera Zikloa, Musikaste... 2008ko ekainean SMASH Ensemblerekin (Salamanka-París) batera arituko da Madrileko Reina Sofia Auditorioan CDMC-ren denboraldiaren barne.

Iruneko Fundazioko Orkestra, Donostiako Anitz Orkestra Sinfonikoa edo Donostiako Kamara Orkestra zuzendu ditu. Azken horrekin 2007an Talde Nazional Gazteen bigarren saria lortu zuen. Gasteizeko Ganbera Orkestraren zuzendari bezala Gasteizeko Jazzaldian ere parte hartu du. 2007/2008 denboraldiaren amaieran Euskadiko Orkestra Sinfonikoa zuzenduko du.

2007ko irailean egin zen lehiaketan Bilboko Orkestra Sinfonikoaren Zuzendari Laguntzaile plaza lortu zuen.

Zuzendari bezala film ezberdinen musika bandak, Anitz Orkestra Sinfonikoarekin hiru piano kontzertu eta Espainiako Irrati Telebistarako Gasteizko Ganbera Orkestrarekin egin zuen kontzertua grabatu ditu.

Nace en Irun en 1976 donde comenzará a recibir clases de trompeta. Se especializa en San Sebastián, Bordeaux y Munich, colaborando con Orquestas como la Sinfónica de Euskadi o Sinfónica de Munich. En 2004 decide dedicarse a la dirección de Orquesta.

Su formación como director incluye cursos con los maestros Jesús López Cobos, Arturo Tamayo o Enrique García Asensio, así como el curso organizado por el IRCAM de París con los directores Peter Eötvos y Szolt Nagy junto a la Philarmónica de Luxemburgo.

Su experiencia se centra en la música de cámara, dirigiendo diferentes conjuntos instrumentales dedicados a la difusión de la música del siglo XX y XXI: T.I. 04 (Vitoria), Conjunto Instrumental de Musikene (San Sebastian), KABOS Ensemble (Bilbao), KRATER Ensemble (San Sebastián)..., estrenando composiciones de Sergio Gutiérrez, Oscar Colomina, Xabier Mariño, Mikel Chamizo, Leyre Aguirre y Aurelio Edler. Ha participado en Festivales como el I Festival Internacional Carmelo Bernaola, Quincena Músical de San Sebastián, II Festival de Nuevas Tendencias de Estíbaliz, en el Ciclo de Cámara de la BOS, Musikaste... En Junio de 2008 actuará junto a SMASH Ensemble (Salamanca-París) en el Auditorio del Reina Sofia en Madrid dentro de la temporada del CDMC.

Ha dirigido la Orquesta de la Fundación de Irun, la Orquesta Sinfónica Anitz de San Sebastián o la Donostiako Kamara Orkestra con la que consiguió en 2007 el segundo premio Nacional de Jóvenes Agrupaciones, así como la Orquesta de Cámara de Vitoria actuando en el Festival de Jazz de Vitoria. A finales de la temporada 07/08 dirigirá a la Orquesta Sinfónica de Euskadi.

Obtiene la plaza de Director Asistente de la Orquesta Sinfónica de Bilbao tras el concurso realizado en Septiembre de 2007.

Como director ha grabado diferentes bandas sonoras, tres conciertos para piano con la Orquesta Sinfónica Anitz y el concierto realizado con la Orquesta de Cámara de Vitoria para RTVE.

konpositoreak
compositores

Aguirre, Leyre

Irunen jaio zen 1978an eta zazpi urte zituela hasi zituen solfeo eta pianoko ikasketak. Batxilergoa amaitu ondoren, Bordelera joan eta han musikako ikasketak jarraitu zituen. Hiru urtez musikologia ikasi zuen, eta aldi berean harmonia, kontrapuntua eta koru zuzendaritza landu zituen bertako Kontserbatorioan. Musikagintza alorreko ezagutzak Jean-Yves Bosseur musikagile eta musikologoarekin sakondu zituen. Bordeleko Kontserbatorio Nazionalean Konposizioko Lehenengo Saria irabazi zuen. 2003an Musikenen (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia) onartu zuten eta gaur egun bertan ari da Konposizioko Goi Mailako ikasketak Gabriel Erkorekarekin burutzen.

Nace en Irún en 1978. Se inicia en la música estudiando piano. Más adelante se marchó a Burdeos donde cursó tres años de musicología. Paralelamente estudió armonía, contrapunto y dirección de coro en el conservatorio y, posteriormente, composición con el musicólogo y compositor Jean-Yves Bosseur. En la actualidad prosigue sus estudios de composición con el compositor Gabriel Erkoreka en Musikene-Centro Superior de Música del País Vasco.

Anchieta, Juan de

1462. urtearen inguruan jaio zen Azpeitian. Iruñeko katedralean izan ote zen susmoa badago, baina inork ez daki ziurtasun osoz zer heziketa izan zuen hasieran. 1489an, 27 urte zituela eta Isabel Erregina Katolikoaren kaperaua eta kantaria zela, ezagutu omen zituen, antza, Gortean mugitzen ziren musikagileak eta bertan entzuten ziren garai horretako musikalanak, nolabaiteko eragina izan zutenak gero musika sortzeko erakutsi zuen etorri handiko estiloan.

Errege Familiaren zerbitzutan igaro zituen hogeita hamar urteetan, Flandriara joan behar izan zuen, 1504. urtearen inguruan, Juana Printzesa laguntzera.

Juan de Salinas bezalako musika-teorikoek eta Fernández de Oviedo eta Menéndez y Pelayo bezalako idazleek bere garaiko kideen artean izan zuen ospea aipatzen dute.

Bi dozena musika-lan polifoniko eta gehiago ezagutzen ditugu eta hona hemen Aita Donostiak esan duena horiei buruz: "Las misas, motetes, magnificats de Anchieta son de una escritura fácil, correcta, que no busca la dificultad por el gusto de vencerla. No llega tal vez a la altura de un contemporáneo suyo, Josquin des Prés, ciertamente, pero el expresivismo de la música de Anchieta es de buena ley y la hace muy interesante".

Johanes Antxietak gaisorik eta erretiratua igaro zituen bere bizitzaren azkeneko lau urteak (1519-1523) Azpeitian eta bertan hil zen 1523ko uztailaren 30ean.

Nace en Azpeitia en torno a 1462. Se especula con su posible estancia en la catedral de Pamplona, pero no se conoce con seguridad su formación inicial. Al aparecer en 1489, con 27 años, como capellán y cantor de la reina Isabel la Católica, se supone que fue en la Corte donde, en contacto con los autores y composiciones de la época, alcanzó un inspirado estilo compositivo.

En sus treinta años de servicio a la Familia Real, también se trasladó a Flandes, probablemente en 1504, acompañando a la princesa doña Juana.

Teóricos musicales, como Juan de Salinas, o escritores como Fernández de Oviedo y Menéndez y Pelayo recalcan la celebridad de que gozó entre sus contemporáneos.

Se conocen dos docenas largas de composiciones polifónicas suyas, de las que el P. Donostia dice: "Las misas, motetes, magnificats de Anchieta son de una escritura fácil, correcta, que no busca la dificultad por el gusto de vencerla. No llega tal vez a la altura de un contemporáneo suyo, Josquin des Prés, ciertamente, pero el expresivismo de la música de Anchieta es de buena ley y la hace muy interesante".

Juan de Anchieta vivió los últimos cuatro años de su vida (1519-1523) retirado y enfermo en Azpeitia. Fallece en esta población el 30 de julio de 1523.

Arruazu, Ángel de

Arruazun (Nafarroa) jaio zen 1908an. Federico Berguera Navarro zuen izena eta kaputxino sartzerakoan Ángel de Arruazu izena hartu zuen. Altsasuko seminarioan egin zituen Humanitateko ikasketak, eta aldi berean musika heziketa bikaina jaso zuen. Filosofia eta Teologia ikasi ondoren, apaiz egin eta Txilera joan zen (1934-1967). Bertan apaiz izateaz gain, organista eta zenbait abesbatzen sortzailea eta zuzendaria izan zen. Handik itzultzean, Zaragozako San Antonio Santutegira joan zen, eta bertan organista, ikasketxeko musika zuzendaria eta parrokiko koruko zuzendaria ere izan zen.

Musikagile bezala obra erlijiosoak idatzi zituen, zuzentzen zituen abesbatzentzat konposaturiko musika korala batez ere. 50 obra inguru idatzi zituen, eta horietako batzuk argitaratuak izan ziren. Horretaz gain, zenbait euskal eta txiletar doinu ere harmonizatu egin zituen.

Ángel de Arruazu Zaragozan hil zen 1973an.

Nace en Arruazu (Navarra) en 1908. Su nombre de pila era Federico Berguera Navarro y adopta el de Ángel de Arruazu al ingresar en la orden capuchina. Estudia Humanidades en el seminario capuchino de Alsasua, recibiendo a su vez una buena formación musical. Tras cursar Filosofía y Teología, se ordena sacerdote y se traslada a Chile (1934-1967), donde junto a las tareas sacerdotales desarrolla su actividad musical como organista, fundador y director de coros. A su regreso, le destinan al Santuario de San Antonio de Zaragoza, siendo organista y director de música del colegio así como del coro parroquial.

Como compositor es autor de obras religiosas, la mayoría música coral destinada a los coros que dirigió. Compuso cerca de 50 obras, algunas de las cuales fueron publicadas. También armonizó melodías vascas y chilenas.

Ángel de Arruazu falleció en Zaragoza en 1973.

Azurza, David

Tolosan (Gipuzkoa) jaio zen 1968an. Arte Ederretan (Zaharberritzea) lizentziatua da. Tolosako Hodeiertz Abesbatzan tenore bezala abesten hasi ondoren, Kontratenore ikasketak egin zituen Isabel Alvarezekin (Donostia). Kantuko goi mailako ikasketak Madrilgo Kontserbatorioan egin zituen ikasle libre moduan eta karrera amaierako saria lortu zuen, bai eta Lucrecia Arana saria ere.

Capilla Peñaflorida eta Conductus ensemble (antzinako musikan espezializatuak) eta KEA (musika garaikidea) taldeetako kide da. Estatu eta nazioarte mailako polifoniarekin erlazionaturiko proiektu eta grabazio desberdinetan parte hartu du talde horiekin. Beste abesbatza askorekin kolaborazioak egin ditu: La Trulla de Bozes, La Caravaggia, Nova Lux Ensemble de la Coral de cámara de Pamplona, La Compañía Musical, Taller de Música Antigua del Orfeón Caixa Galicia, Ensemble Durendal eta Antigua Capilla Hispana.

Zenbait operen estreinaldi absolutu eta grabaziotan protagonista paperak izan ditu: Segismundo papera Tomás Marcoren Segismundon (2003), Mauricio Soteloren Dulcinea-n (2006, Madrilgo Teatro Realean), Bilboko Arriaga Antzokian eta Sevillako Maestranzan D. Quijote papera (2007), Eduardo Pérez Masedaren Swan (el peso de la sombra) eta La apariciónen (Madrilgo La Abadía Antzokian, 2006). 2007an Madrilgo Teatro Realean estreinatu zen Sánchez Verduren El Viaje a Simorgh operan ordezko abeslari izan zen, Madrilgo Orkestra Sinfonikoarekin eta Jesús López Cobosen zuzendaritzapean.

Koru zuzendari izateaz gain, ahots teknikako irakaslea da estatuko abesbatza federazioek edo talde desberdinek antolatzen dituzten ikastaroetan.

Musikagintza alorrean ahotserako musikaren alorrera mugatzen da bere lana. Abesbatzen enkarguak jasotzen ditu eta bere obrek konposizio lehiaketetan sariak lortu dituzte eta derrigorrezko gai izan dira zenbait lehiaketa eta abesbatzen topaketetan. Bere obrak ezagutzera emateko 2004ean Oihu hau argitaletxea sortu zuen.

Nace en Tolosa (Gipuzkoa) en 1968. Licenciado en Bellas Artes (Restauración), se inicia en el canto como tenor en el coro Hodeiertz de Tolosa para pasar después a formarse como contratenor con Isabel Alvarez (S. Sebastián). Realiza estudios Superiores de Canto como alumno libre en el Real Conservatorio Superior de Madrid, donde obtiene el Premio de Honor fin de carrera en la especialidad de canto y el premio extraordinario Lucrecia Arana.

Es miembro de los grupos vocales Capilla Peñaflorida y Conductus ensemble (especializados en música antigua) y KEA (especializado en música contemporánea), con los que ha participado en proyectos y grabaciones de polifonía vocal en el ámbito nacional e internacional. También ha colaborado con otros grupos vocales: La Trulla de Bozes, La Caravaggia, Nova Lux Ensemble de la Coral de cámara de Pamplona, La Compañía Musical, Taller de Música Antigua del Orfeón Caixa Galicia, Ensemble Durendal y Antigua Capilla Hispana.

Ha realizado diversos estrenos absolutos y primeras grabaciones de óperas en roles protagonistas: Segismundo de Tomás Marco (2003) como Segismundo, Dulcinea de Mauricio Sotelo (2006) Teatro Real de Madrid, Teatro Arriaga de Bilbao y Teatro de la Maestranza de Sevilla (2007) como D. Quijote, Swan (el peso de la sombra) y La aparición de Eduardo Pérez Maseda (Teatro La Abadía, Madrid, 2006). En 2007 participa como cantante suplente en el estreno absoluto de la ópera El viaje a Simorgh de José Mª Sánchez Verdú en el Teatro Real de Madrid con la Orq. Sinfónica de Madrid bajo la dirección de Jesús López Cobos.

Es director coral en activo y profesor de técnica vocal en cursos para federaciones y agrupaciones corales por toda la geografía nacional.

Como compositor su actividad se centra exclusivamente en el ámbito vocal. Recibe habitualmente encargos de agrupaciones corales y sus obras han sido premiadas en diversos concursos de composición y elegidas como obras obligadas en concursos y encuentros corales. En Abril de 2004 crea la editorial Oihu hau Musika Korala para difundir su obra.

Bacaicoa, Luis

Etxarri Aranazen (Nafarroa) jaio zen 1920an. Francisco Urrestarazu herriko organistarekin ikasi zuen solfeoa, eta M. Etxebesterekin pianoa eta organua Iruñan. Madrilgo Kontserbatorioan Guridi, Lola Rodriguez eta Julio Gomezekin egin zituen organo, kantu eta konposizio ikasketak. Organoko Sari Nazional Berezia jaso zuen, eta New Yorken pianoko ikasketak sakondu zituen Emilia del Terzorekin. Apaiz pauldarra izanik, herrialde askotan ibili zen misiolari moduan, aldi berean piano, organu eta kantuko kontzertuak emanez. 1964an Haëndelen orkestra eta organurako bi kontzertu grabatu zituen Manilako Orkestra Sinfonikoarekin. Kontzertu ugari eskaini ditu Estatu Batuak, Espainia, Mexiko, Filipinak, eta abarretan. Grabazioak ere egin ditu RTVE-rentzat. Madrilgo Milagrosa basilikako organista titularra izan da eta Iruñako Milagrosakoa ere bai. Afizionatu mailan gitarra ere gustukoa du, eta kantautore moduan diskoak grabatu ditu.

Musikagintzan ere jardun du, batez ere musika erlijiosoa landuz. Obra horien artean aipatzekoak dira: In honorem Sanctae Luisae Marillaccensis meza (4A, org.), Padre nuestro (7A), 25 Cantos-motetes (A, org.), pianorako obrak, organorako, eta abar.

Nace en Echarri Aranaz (Navarra) en 1920. Estudia solfeo con el organista local Francisco Urrestarazu y piano y órgano con M. Echeveste en Pamplona. En el Conservatorio de Madrid estudia órgano con Guridi, canto con Lola Rodríguez y composición con Julio Gómez. Logra el Premio Extraordinario Nacional de Órgano y perfecciona sus estudios de piano con Emilia del Terzo en New York. Sacerdote paúl, viaja por numerosos países como misionero, ofreciendo al mismo tiempo recitales de piano, órgano y canto. En 1964 graba dos conciertos de Haëndel para orquesta y órgano con la Orquesta Sinfónica de Manila. Ofrece conciertos en Estados Unidos, España, México, Filipinas, etc. y realiza grabaciones para RTVE. Ha sido organista titular de la basílica de la Milagrosa de Madrid y de la Milagrosa de Pamplona. Aficionado a la guitarra, ha grabado discos como cantautor.

Se ha dedicado también a la composición, principalmente de música religiosa. Entre sus obras se incluyen: misa In honorem Sanctae Luisae Marillaccensis (4V, órg.), Padre nuestro (7V), 25 Cantos-motetes (V, órg.), obras para piano, piezas para órgano, etc.

Bello Portu, Javier

Musikagile eta konpositore hau 1920an jaio zen Tolosan. Piano, harmonia eta konposizioko lehen ikasketak Mokoroa anaiekin eta Felipe Gorritirekin egin ondoren, Cesar Figeridorekin jarraitu zuen Donostiako Kontserbatorioan. Madrilen Filosofia eta Letrak ikasten zituen bitartean Baroja familia ezagutu izanak bere estetika musikalean eragina izan zuen. 1943an Tolosara itzuli zenean Felipe Gorriti Eskolania sortu zuen eta euskal konpositoreen errepertorioa Espania eta Frantzian zehar zabaldu zuen. Zuzendaritzako ikasketak Pariseko Kontserbatorian, Sienako Chigiana Akademian eta Salzburgon amaitu zituen, azken honetan Von Karajan, Dixon eta Leopoldo Hages maisuekin. Donostiako Orkestra Sinfonikoan, Zaragozakoan eta Santa Cecilia Orkestran (1963-1983) zuzendari titularra izan zen. Salzburgoko Mozarteum-eko Orkestra, Madril eta Bilbaoko Sinfonikak, edo Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin kolaboraziak izan zituen. Donostiako Easo Abesbatza eta Baionako Euskal Herriko Abesbatza ere zuzendu zituen.

Loiolako Nazioarteko Jaialdiko zuzendari artistikoa izan zen, "Asociación de Amigos de la Opera Vasca"-ko ohorezko lehendakaria eta Euskal Herriko Txistularien Elkarteko lehendakaria.

Literatura eta artearekiko zaletasun handia sentitzeaz gain, musikari buruzko zenbait idatziren egilea izan zen: txistuari buruz, Felipe Gorriti, Manterola eta Santestebani buruz, Gipuzkoako musikari buruz edo Pio Barojaren ideia musikai buruz, adibidez. 2001ean Aus Art Records disketxeak Gorriti, Ledesma, Manterola eta Xabier Muniberen obrekin diska batzuk argitaratu zituen Bello Porturen zuzendaritzapean.

Sorkuntzari dagokionez, nahiz eta obra asko ez eduki obra nabarmengarriak idatzi zituen. Korurako lanak dira batez ere, "El llanto de Zalacain", "Soule" edo el tríptico coral "Pays Basque", esaterako. "Carnaval de Lanz" suite sinfonikoa eta Iparragirreren abestien korurako moldaketak ere azpimarra ditzakegu. Javier Bello Portu euskal musikaren erreferentzi puntu garrantzitsuenetako bat izan da azken hamarkadetan. Donostian hil zen 2004ko otsailean.

Director y compositor guipuzcoano nacido en Tolosa en 1920. Tras iniciar los estudios de piano, armonía y composición con Eduardo e Ignacio Mocoroa y Felipe Gorriti, completa su formación instrumental con César Figuerido en San Sebastián. Cursa estudios de Filosofía y Letras en Madrid, donde contacta con la familia Baroja, cuya influencia será fundamental en su estética musical. Cuando en 1943 vuelve a Tolosa crea la Escolanía Felipe Gorriti y con ella recorre gran parte de España y muchas ciudades de Francia difundiendo el repertorio de compositores vascos. Continúa sus estudios de dirección de orquesta en el Conservatorio de París, en la Academia Chighiana de Siena y en Salzburgo con Von Karajan, Dixon y Leopoldo Hages. Ha sido director titular de la Orquesta Sinfónica de San Sebastián, de la de Zaragoza y de la Orquesta Santa Cecilia (1963-1983). Ha colaborado con formaciones como la Orquesta del Mozarteum de Salzburgo, las sinfónicas de Madrid y Bilbao, o la Orquesta Sinfónica de Euskadi. Dirigió también el Coro Easo de San Sebastián y el Coro del País Vasco de Bayona.

Fue director artístico del Festival Internacional de Loyola desde 1971, Presidente de honor de la Asociación de Amigos de la Opera Vasca y presidente de la Asociación de Txistularis del País Vasco.

Amante del arte y la literatura, es autor de diversos escritos musicales sobre el txistu, Felipe Gorriti, Manterola y Santesteban, la música en Gipuzkoa o las ideas musicales de Pío Baroja. En 2001 el sello discográfico Aus Art Records publicó varios discos con obras de Gorriti, Ledesma, Manterola y Xabier Munibe dirigidas por Bello Portu.

Desde el punto de vista de la creación, a pesar de no componer gran cantidad de obras, sus composiciones son notables. Destaca su producción para coro con obras como "El llanto de Zalacain", "Soule" y el tríptico coral "Pays Basque". Cabe también destacar la suite sinfónica "Carnaval de Lanz", así como la adaptación de canciones de Iparraguirre para coro. Javier Bello Portu ha sido uno de los referentes de la música vasca de las últimas décadas. Falleció en San Sebastián en febrero de 2004.

Brumel, Antoine

Musikagile frantziarra. 1460 inguruan jaio zen, Brunelle-n (Frantzia) beharbada eta 1512-13an hil zen. Josquin de Pres-en dizipulua izan zen, eta garaiko musikari garrantzitsua eta Errenazimenduko franko-flamendar eskolako lehenengo musikagile frantsesetako bat. Chartres, Laon eta Pariseko katedraletan ibili zen, bai eta Ferrarako gortean ere, 1505 eta 1520 artean. Meza, moteteak, abestiak eta musika instrumentala idatzi zituen.

Compositor francés. Nace hacia 1460 posiblemente en Brunelle (Francia) y fallece cerca de 1512-13. Discípulo de Josquin de Pres, es uno de los primeros compositores franceses de la escuela franco-flamenca del Renacimiento y uno de los músicos destacados de la época. Prestó servicios en las catedrales de Chartres, Laon y París, así como en la corte de Ferrara entre 1505 y 1520. Su obra comprende misas, motetes, canciones y música instrumental.

Busto, Javier

1949an Hondarribian jaioa. Valladolideko Unibertsitatean Medikuntzan Lizentziatua da. Erwin List maisuarekin hasi zen abesbatza munduan.

Ederki abesbatzaren zuzendaria (Euskal abeslariz osatutako abesbatza), Valladoliden (1971-1976). Eskifaia Abesbatzaren sortzaile eta zuzendaria, Hondarribia (1978-1994). Kanta Cantemus Koruaren sortzaile eta zuzendaria izan da, Gipuzkoa (1995-2007). Bere abesbatza lanak Euskal Herrian, Alemanian, Estatu Batuetan, Britainia Handian eta Suedian argitaratzen dira. Zuzendari gonbidatua izan da Alemania, Argentina, Belgika, Estatu Batuak, Espainia, Frantzia, Hungaria, Italia, Japonia, Kanada, Suedia eta Venezuelan.

Nace en Hondarribia en 1949. Licenciado en Medicina y Cirugía por la Universidad de Valladolid. De formación musical autodidacta, comienza su actividad coral animado por el Maestro Erwin List.

Es director del Coro Ederki en Valladolid (1971-1976). Fundador y director del Coro Eskifaia en Hondarribia (1978-1994). Fundador y director del coro Kanta Cantemus Korua (1995-2007). Sus obras se editan en el País Vasco, Alemania, EEUU, Francia, Reino Unido y Suecia. Ha sido invitado como director y jurado a diferentes festivales y concursos en Alemania, Argentina, Bélgica, Canadá, España, EEUU, Francia, Hungría, Italia, Japón, Suecia y Venezuela.

Cossetto, Emil

Zuzendari eta musikagile kroata hau Triesten (Italia) jaio zen 1918an. Zagreb-en (Kroazia) literatura, musikagintza eta zuzendaritza ikasketak egin zituen. Abesbatza eta orkestra desberdinak zuzendu ditu, Joza Vlahovic Chorus eta Mosa Pijade Chorus, adibidez. Musikagile Kroaten Elkarteko lehendakaria izan da. Nahiz eta genero ezberdinak landu, bere obran musika koral da azpimarragarriena. 1974 eta 1978an Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketako konposizio sariak eskuratu zituen. 2006an Zagreb hirian hil zen.

Director y compositor croata nacido en Trieste (Italia) en 1918. Estudia literatura, composición y dirección en Zagreb (Croacia). Ha dirigido distintos coros y orquestas, sobre todo en Zagreb, entre ellas Joza Vlahovic Chorus y Mosa Pijade Chorus. Presidente de la Asociación de Compositores Croatas, su obra abarca distintos géneros aunque destaca la música coral. En 1974 y 1978 resultó ganador en el concurso de composición del Certamen Internacional de Coros de Tolosa. Fallece en Zagreb el año 2006.

Egiguren Etxebarria, Jesús

Durangon jaio zen 1945ean. Piano eta Konposizio ikasketak Bilboko Juan Crisóstomo Arriaga Kontserbatorioan egin zituen. Munichen sakondu zituen ikasketak. Betidanik Abesbatzen mundura oso lotuta egon da alor desberdinetan. Urte askotan Durangoko Orfeoiaren zuzendaria izan da eta Durangoko "Bartolome Ercilla" Musika Kontserbatorioko irakaslea.

Musikagile bezala sari desberdinak jaso ditu. "Antífona" obrak Segorbe Saria lortu zuen 1987an eta hurrengo urtean Eskifaia Abesbatzak estreinatu zuen Javi Bustoren zuzendaritzapean. Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan derrigorrezko obra izan da eta momentuz grabaturiko hiru bertsio ditu: Kubako Gaudeamus Abesbatzarena, Ingalaterrako The Scholars-ena eta Durangoko Doinuzahar Abesbatzarena. Obra hori Corpus Christiko Liturgiaren testuan oinarritzen da.

Nace en Durango (Bizkaia) en 1945. Realiza estudios de Piano y Composición en el Conservatorio Juan C. Arriaga de Bilbao. Amplía su formación en Munich. Ha estado siempre muy vinculado al Mundo Coral en todas sus facetas. Ha sido director del Orfeón de Durango y profesor en el conservatorio "Bartolome Ercilla" de la localidad.

Como compositor ha obtenido algunos premios, que le acreditan su valía.

La obra "Antífona" fue ganadora del Premio Segorbe en 1987 y fue estrenada por el Coro Eskifaia, bajo la dirección de Javi Busto, al año siguiente. Ha sido "obra obligada" en el Certamen de Masas Corales de Tolosa; y, en la actualidad, tiene tres versiones grabadas en CD: la del Coro Gaudeamus de Cuba, la de The Scholars de Inglaterra y la de Doinuzahar de Durango. Se basa en el texto de la Liturgia del Corpus Christi.

Edler, Aurélio

Musikagile hau Santa Marian (Brasil) jaio zen 1976an. Daniel Wolff-ek bideratuta 2001ean gitarrako goi mailako titulua eskuratu zuen Porto Alegreko (Brasil) Rio Grande del Sur-eko Unibertsitate Federaleko Arte Institutuan. 2002an Musikenen hasi zen eta Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano eta Zuriñe Gerenabarrenarekin ikasi ondoren 2007an konposizio titulua lortu zuen. 1997an Rudrásksha ganbera taldea sortu zuen, eta musikagile, zuzendari eta gitarra jotzaile bezala bere lehen lanak aurkeztu zituen. Brasil eta Portugalen hainbat kontzertu eman eta hiru CD grabatu zituzten, eta horietako bigarrenak 2002. urteko ganbera musikako CD onenari ematen zitzaion Premio Açorianos de Porto Alegre saria irabazi zuen. Hainbat beka lortu ditu, eta jaialdi eta ikastarotan parte hartu du Felix Ibarrondo, Flavio Oliveira, Laurene Martin, Nicolas Bacri, Mathew Burtner, Michael Finisy, Walter Branchi, Sotelo edo Lang-ekin, esaterako. 2005-06 ikasturtean Erasmus programari esker Boloniako "Giovanni Batista Martini" kontserbatorioan Cristina Landuzzi, Lelio Camilleri eta Adriano Guarnierirekin ikasi zuen. Konposizio lehiaketa garrantzitsuetan sariak lortu ditu: 2006an Premio INJUE, 2007an Pablo Sorozabal lehiaketa, Franz Joseph Reinl-Stiftung Prize 2007, ENSEMBLIA 2007, Manuel de Falla Katedra 2007 eta 2008an. Bere obrak Europa eta Hego Amerikako hainbat herrialdetan interpretatu izan dira.

Gaur egun Parisen bizi da, musikagintza Donostiako Krater Ensemble taldearen zuzendaritza artistikoarekin uztartuz. Suitzako Haute École des Arts de Berne-n (HEAB) Konposizioa eta Teatro Musikaleko Masterra ere egiten ari da Georges Aperghis-ekin.

Nacido en Santa Maria, Brasil, en 1976, obtiene el título superior en guitarra en el 2001 bajo la orientación de Daniel Wolf en el Instituto de Artes de la Universidad Federal del Rio Grande del Sur, en Porto Alegre, Brasil. En 2002 ingresa en el Centro Superior de Música del País Vasco (MUSIKENE) en San Sebastián, obteniendo el título en 2007 bajo la orientación de Gabriel Erkoreka, Ramón Lazkano y Zurine Gerenabarrena. En 1997 crea el ensemble Rudráksha, con el que interpreta sus primeras obras actuando como compositor, director y guitarrista. Con Rudráksha graba tres discos y recibe el Premio Açorianos 2002, uno de los más prestigiosos premios de música de la región Sur de Brasil, otorgado por la Secretaría de Cultura de Porto Alegre. Ha sido becado en varios cursos y festivales recibiendo clases intensivas de Sciarrino, Saariaho, Finissy, Furrer, Durieux, Lang, Sotelo, entre otros. En el curso 2005/2006 participa en el Programa Erasmus con beca de Kutxa y estudia en el Conservatorio de Bolonia, Italia, con los compositores Adriano Guarnieri, Cristina Landuzzi y Lelio Camilleri. Ha sido galardonado en importantes concursos de composición como el Premio INJUVE 2006, Concurso Pablo Sorozabal 2007, Franz Joseph Reinl-Stiftung Prize 2007, ENSEMBLIA 2007, Catedra Manuel de Falla 2007 y 2008. Sus piezas han sido estrenadas en varios países de Europa y Sudamérica. Actualmente vive en Paris y compagina su labor de compositor con la de director artístico del Krater Ensemble de San Sebastián y cursa un Master en Composición y Teatro Musical con Georges Aperghis en la Haute École des Arts de Berne (HEAB), Suiza.

Erkoreka, Gabriel

1969an jaio zen Bilbon. Juan Cordero eta Carmelo Bernaolarekin egin zituen ikasketak Bilboko Juan Crisostomo Arriaga eta Gasteizeko Jesus Guridi Kontserbatorioetan, eta Musikagintza, Pianoa eta Ganbera Musikan ohorezko sariak eskuratu zituen. 1995ean Londreseko Royal Academy of Music-en Michael Finnissy-rekin burutu zituen graduondoko ikasketak.

Bere obrak leku askotan interpretatu dira: Veneziako Biennalean (2004), Vienako Musikverein-an; Londreseko South Bank Centre, ICA eta Wigmore Hall-ean; Manchesterreko ISCM World Music Days-ean (1998), Amsterdameko el Muziekgebouw aan t'IJ-ean; Tokyoko Toru Takemitsu Jaialdian, Sydneyko Musika Berrien Jaialdian; New Yorkeko Symphony Space eta New Paths in Music Jaialditan (2007) eta Chicagoko Crown Hallean; Finlandiako 'Time of Music' Jaialdian; Huddersfield Contemporary Music Festival-ean; Alacanteko Nazioarteko Jaialdian eta Madrilgo Musikako Auditorio Nazionalean.

Lortu dituen konposizio sarietatik azpimarratzekoak dira: SGAE Saria (1996); Eusko Jaurlaritzako Saria (1999); Josiah Parker Prize (1997) eta Royal Academy of Music-eko beste zenbait sari. 2001ean Erroma Saria irabazi zuen, bai eta INAEMeko eta Pariseko Espainiar Eskolaren Konposizio Sariak ere. 2007an Hong Kong-eko ISCM Jaialdirako aukeratua izan zen eta Reina Sofia Sarian finalista ere bai.

Era berean enkargu ugari jaso ditu INAEM, SGAE, Amsterdameko Nieuw Ensemble, Hannovergo Biennale für Neue Musik, Royal Academy of Music Symphony Orchestra, Madrilgo Komunitateko Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Donostiako Musika Hamabostaldia, Valentziako ENSEMS Jaialdia eta Bilboko Museo Guggenheim bezalako instituzioetatik. 2001-2002 denboraldian JONDEren konpositore erresidentea izan zen.

2001ean Royal Academy of Music-ek ohorezko kide izendatu zuen eta orkestazio klaseak eman zituen bertan. Aldi berean, konferentziak eman ditu Bilboko Música del Siglo XX Jaialdian eta Madrilen CDMC-ek antolatutako Musikagile Gazteen Topaketetan; Londres, Chicago eta Manchester-eko Cervantes Institutuetan, eta Estoril-eko Jaialdian. Gaur egun Londresen bizi da eta konposizio irakaslea da Musikene-Euskal Herriko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

Nace en Bilbao en 1969. Estudia con Juan Cordero y Carmelo Bernaola en el Conservatorio Superior "J.C. de Arriaga" y en la Escuela Superior de Música "J. Guridi" obteniendo premios de honor en Composición, Piano y Música de Cámara. En 1995 ingresa en la Royal Academy of Music de Londres donde realiza los estudios de postgrado de composición con Michael Finnissy.

Sus obras han sido interpretadas en la Biennale de Venecia 2004, la Musikverein de Viena; South Bank Centre, ICA y Wigmore Hall de Londres; en el ISCM World Music Days 1998 de Manchester, el Muziekgebouw aan t'IJ de Amsterdam; el Toru Takemitsu Festival en Tokyo, Festival de Nuevas Músicas de Sydney; el Symphony Space y New Paths in Music Festival 2007 de Nueva York, y el Crown Hall de Chicago; el Festival 'Time of Music' de Finlandia; el Huddersfield Contemporary Music Festival; en el Festival Internacional de Alicante y el Auditorio Nacional de Música de Madrid.

Ha obtenido diversos premios por sus composiciones entre los que cabe destacar: el Primer Premio de la SGAE 1996; Premio del Gobierno Vasco en 1999; Josiah Parker Prize y otros premios en la Royal Academy of Music. En 2001 obtuvo el Premio de Roma, así como el Premio de Composición del INAEM y del Colegio de España en París. Ha sido seleccionado para el ISCM Festival 2007 de Hong Kong, y finalista del Premio Reina Sofía.

Ha recibido encargos de INAEM, SGAE, Nieuw Ensemble de Amsterdam, Biennale für Neue Musik de Hannover, Royal Academy of Music Symphony Orchestra, Orquesta Sinfónica de la Comunidad de Madrid, Orquesta Sinfónica de Euskadi, la Orquesta Sinfónica de Bilbao, Quincena Musical de San Sebastián, Festival ENSEMS de Valencia y Museo Guggenheim-Bilbao. Fue compositor en residencia de la JONDE en la temporada 2001-2002.

En 2001 fue nombrado miembro asociado honorífico de la Royal Academy of Music (ARAM), donde impartió clases de orquestación. Asimismo, ha ofrecido conferencias en el Festival de Música del Siglo XX de Bilbao y en los Encuentros con los Jóvenes Compositores organizados por el CDMC en Madrid, en los Institutos Cervantes de Londres, Chicago y Manchester, y en Festival de Estoril. Actualmente vive en Londres y es profesor de composición en MUSIKENE-Centro Superior de Música del País Vasco.

Garbizu, Tomás

1901eko irailaren 12an Lezon jaioa. Bere elizako korokumea izan zen. Pianoa jotzen ikasi zuen bere anaia Jose apaizarekin. Arantzazuko Apaizgaitegian ikasi zuen urte batzutan eta honek hatz sakona utzi zion. Donostiako Kontserbatorioan Jose Mª Iraolarekin piano eta Beltran Pagolarekin armonia ikasi zuen. Ikasketak sakontzera Madrilgo Kontserbatoriora eta gero Parisa, Charles Leboutekin, jo zuen.

Frantziak Madrilen duen Enbajadako organojole ofiziala izan zen.

1954 ezkeroztik Donostiako Kontserbatorioko organo Katedraduna izan zen, erretiro garai arte, ikasle adituak bultzatu eta lagunduz.

Tomas Garbizu konposagileago da jole baino. Horregaitik era guztietako lanak utzi dizkigu: erlijio musika ugari, euskal musika korala, txistu, lied, piano, organo, kamara musika, oratorioak, zartzuelak e.a.

Donostian hil zen 1989ko azaroaren 27an.

Lanak: Missa Benedicta eta beste mezak, moteteak eta liturji musika, Tripti-co del Buen Pastor eta organorako zenbait, kororako lan asko eta asko euskal nahiz bestelako gaien oinarrituak, poema sinfonikoak "Babilon Beltza", "Baso Jaun", "Danos la paz", "Aloña", e.a. luze bat.

Nació en Lezo el 12 de septiembre de 1901. Fue niño de coro en su parroquia. Estudió piano con su hermano José, sacerdote. Estudió algunos años en el Seminario de Aránzazu, que dejó una gran huella en el corazón de Tomás Garbizu. Después pasó al Conservatorio de San Sebastián, donde tuvo como profesores a José Mª Iraola y Beltrán Pagola, con quienes estudió piano y armonía respectivamente. Amplió estudios de órgano en el Conservatorio de Madrid, y más tarde en París con Charles Lebout.

Fue organista oficial en la Embajada Francesa en Madrid. Desde 1954 desempeñó la cátedra de órgano en el Conservatorio de San Sebastián, hasta su jubilación, promocionando importantes discípulos.

Tomás Garbizu era más compositor que intérprete. Así es como nos ha legado un gran fondo de obras de todo género: abundante música religiosa, música coral vasca, para txistu, lied, piano, órgano, música de cámara, oratorios, zarzuela, etc...

Falleció en San Sebastián el 27 de noviembre de 1989.

Obras: Missa Benedicta y otras misas, motetes y piezas de música litúrgica. Tríptico del Buen Pastor y otras para órgano, una larga lista de obras sobre temas vascos y no vascos para coro, los poemas sinfónicos "Babilon beltza", "Baso Jaun", "Danos la paz", "Aloña", etc., etc.

García de Basurto, Juan

XVI. mendeko kapera maisua. Euskal lurraldearen gehiengoari zegokion Calahorrako elizbarrutian jaio zen 1480 inguruan. Toledon Cisneros kardenalaren zerbitzuetara egon zen kapera maisu bezala. 1517an Tarazonako (Zaragoza) Katedraleko kantari izendatu zuten, eta hainbat hilabeteren buruan koruko maisu postua eskuratu zuen. 1521ean Zaragozako Nuestra Señora del Pilar basilikara joan zen. Dirudienez, gero Palentzian egon zen (1521-1525) eta Isabel enperatrizaren kapera maisu eta kapilau erreala izan zen. 1539an Juan Tavera Toledoko artzapezpikuaren zerbitzura jarri zen kapera maisu moduan. Lau urte geroago, 1543an, kapera hau Felipe II. Printzearen Kapera bihurtu zen. Garai honetan bi tiple, bi kontraltu, bi tenore, lau kontrabaju, Cabezon organista eta Francisco Gomez-ek osatzen zuten kapera. 1547an hil zenean, Pedro de Pastrana izan zen bere ondorengoa.

XVI. mendearen lehen zatian beste askorekin gertatzen den bezela, musikagile bezela konposatu zituen obretatik ez dira asko kontserbatzen. Ezagutzen direnen artean lau meza, motete desberdinak eta instrumenturako zenbait transkripzio daude. Misa in Agendis mortuorum obra Espainian egin zen lehenengo hileta meza polifonikoetako bat izan zen.

Maestro de capilla del siglo XVI. Nace en la diocésis de Calahorra,- diócesis a la que pertenecían buena parte de las localidades vascas-, hacia 1480. Presta servicios de maestro de capilla en la corte del cardenal Cisneros en Toledo. En 1517 es contratado como cantor en la Catedral de Tarazona (Zaragoza), donde meses más tarde asciende a maestro de coro. En 1521 se traslada a Zaragoza para ocupar el magisterio de la Basílica de Nuestra Señora del Pilar. Parece que después estuvo en Palencia (1521-1525) y posteriormente fue capellán real y maestro de capilla de la emperatriz Isabel. En 1539 entra a servir como maestro de capilla del arzobispo de Toledo, Juan Tavera. Cuatro años más tarde, en 1543, esta capilla pasa a convertirse en la Capilla del Príncipe Felipe II, formada en esa época por dos tiples, dos contraltos, dos tenores, cuatro contrabajos, el organista Cabezón y Francisco Gómez. Cuando fallece en 1547, le sucede en el puesto Pedro de Pastrana.

No se conservan muchas de sus composiciones, al igual que ocurre con otros compositores de la primera mitad del s. XVI. Se conocen cuatro misas, diversos motetes y varias transcripciones instrumentales. Su Misa in Agendis mortuorum (Ms 5, fols. 68v-82 de la Catedral de Tarazona) fue una de las primeras misas de requiem polifónicas compuestas en España.

González Bastida, José María

Beragaran jaio zen 1908ko irailaren 10ean. Aitarekin, bertako musika bandako zuzendariarekin hasi zituen musika-ikasketak. Familiaren musika-giro ezin hobean murgilduta bizi zela, 8 urte zituenean Bandako flautin-plaza bete zuen. Parrokiako organojole postuan ordezkatu zuen bere aita eta harmoniako eta konposizioko ikasketak burutu zituen Luis Urteagarekin eta instrumentaziokoak eta orkestrakoak Lamotte de Grignon-ekin.

1929an Zumaiako Udal Musika Bandako zuzendari-plaza eskuratu zuen oposizioz eta 1931n Hernanikoa.

1935ean Donostiako Orfeoiak antolatutako Euskal Musika-lanen Sariketako Lehenengo Saria irabazi zuen "Gabon gabean errondari" musika-lanaren bidez. Gero Orfeoiak berak "Fa-n idatzitako Meza", "Miserere" eta "Christus factus est" musika-lanak estrenatu zizkion.

1944an Gasteizeko Udal Musika Bandako zuzendari izendatu zuten eta "Jesus Guridi" Kontserbatorioko irakaslea izan zen garai berean.

1958an Donostiara joan zen bizitzera eta Easo Koruko zuzendari izan zen. Abesbatza horrekin arrakasta handia izan zuen bai Espainian eta baita atzerrian ere. Emanaldi arrakastatsu horien artean Arezzoko (Italia) lehiaketan eskuratu zuen garaipena da azpimarratzekoa. Ospe handiko musika-lanak estrenatu zituen Donostian, horien artean, S. Prokofiev-en "Alexander Newsky", Petrassi-ren Cori di morti eta Oedipus Rex, azken hau Lisboan bertako orkestra sinfonikoarekin eta bere batutapean.

Bai korurako eta bai txisturako konposizio sari asko irabazi ditu eta Donostian, Bilbon, Iruñean eta beste hainbat lekutan burututako Txistularien Alardeetako zuzendaria izan zen urte askotan.

